

CIC BIOGUNE – BIOZIENTZIETAKO IKERKETA KOOPERATIBOKO ZENTROA

Sozietatearen izena

Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Biociencias CIC bioGUNE

IFK

G95229142

Izaera

Elkartea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

2002ko urriaren 11n eratu zen irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa, eta 2003ko urtarrilaren 29an inskribatu zen Elkartearen Erregistroan, [2003ko martxoaren 7ko EBAZPENean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak Bazkunen Erroldan joan den urtarrilean egin diren sarrerak eta oharrak argitaratzeko emandakoan](#), jasota dagoenez.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

EJSN

7211 Ikerketa eta garapen esperimentalak bioteknologian.

Helburua eta xedeak

Elkartearen helburua da biozientzien alorreko jakintza zientifiko eta teknologikoa sortzea, produzitzea, sustatzea, zabaltzea, aplikatzea eta ustiatzea, ikerketa eta garapen esperimentaleko jarduerak sistematikoen bitartez, eta prestakuntza, transferentzia eta emaitzei zabalkundea emateko jarduerak eginez sektore anitzetako gizarte-eragileekin eta eragile enpresarialekin, hirugarrenei irekita beti eta jarduerak bazkideei bakarrik mugatu gabe, Euskal Berrikuntza Sistemako eragileekin lankidetzan jardutea eta konektatuta egotea sustatuz, Euskal Herriko Administrazio Publikoak bultzatuta, biozientziei buruz indarrean dagoen estrategiarekin bat.

Sailkapena kontabilitate nazionalan

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Sozietatearen Funtsa

5.400 €

Bazkideak

BIOEF Fundazioa
Teknologia Parkeen Sarea
EHU
Bizkaiko Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Aldundia
IK4 Research Alliance Elkartea
Tecnalia Fundazioa
5 entitate pribatu

[Bazkideen Batzar Orokorra](#) da elkarrearen gobernu eta administrazioko organo gorena, elkarteko bazkide guztiek osatua.

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	12.953.093 €
Ondare garbia	6.258.115 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	754.027 €
Batez besteko langile-kopurua	118,27

Sozietatearen helbidea

Parque Tecnológico, 801-A, 48160 Derio (Bizkaia).

Webgunea

www.cicbiogune.es